

Taulierrak fuera



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Egunak gero eta lasterrago iragaten dira eta gauak gero eta goizago etortzen.

Harago, ez da nehor ez dena jabetu gure lasterkaldi frenetikoaz, gero eta gehiagotara heltzearen beharraz. Nork ez du bere burua senTitu estu, ezin heldua, egutegi belztuaren aitzinean, beharretik ezin eskapatuz. Behin baizik ez biziko eta mila bizi bagenitu bezala jarduten dugu hala ere. Ezetz erraten ikasteari uko egiten diogu. Ezetz bilkura bat gehiagori, lan bat gehiagori. Ezetz diru gehiagori, elkarte bat gehiagoko kide izateari. Gure ezetzak, arbuigarri bihurtu eta zokoratuko gintuzkeelakoan ote? Beti gabiltza kasketa batekin ez bada bestearekin, eskua sartuz ahal bezainbat saltsatan, errealagoak bihurtzen gaituelakoan?

Gure etxeko amatxik bazeraman amantal bat. Ez genuen arras amatxi, aitaixiren arreba baitzen. Alta, amatxi deitzen genuen. Eta ez zen arras amantala, hori baino zerbait gehiago baitzen. Haatik ez genuen amantal deitzen, *taulier* aitzinekoa baizik.

Halaxe erraten genion, *taulier*, gorputz osoa troxatzen zuen eta hainbat sakela, zinta eta abar zituen oihal puska horri. Tela pisuzkoa izaten zen, ehun idorrekoa, segur aski lihozkoa. Kolore ilunekoa zen,

zikina ez agertzeko eta maiz norberak josia behar propioei egokitzeko.

Oraintxu berriz modan dira halakoak, ostalarren artean sustut, eta niregatik, ostaler horiek *Germinal*-eko jendea dirudite.

Alabaina, tresna biziki praktikoa zen. Egun osoan, funtzionalitate anitzak betetzen zituen. Sukaldean, eskas zen zapiaren ordeko, eskuak xukatze balio zuen. Arroltzeak biltzeko orduan, bi puntetatik loturik, zarea irudikatzen zuen. Saihetseko sakeletik, edozein momentutan atera zitekeen Pie Qui Chante goxoki bigundua, haur negarti batentzat nahiz ahulezia baten uxatzeko nahiz, agian, ideia beltzen eteteko. Euri egunetan, korralearen zeharkatzeko, atzekoz aurrera ezarrik, aterkia zen.

Amatxik goizetik janzen zuen. Ez bainaiz oker, askaldu aitzin soinean zuen, kafea irakiteko artean, sua pizteko gisan. Zerbitzari eta langile funtzioak zituen bitartean soinean eramanen zuen. Horregatik guztiagatik, ez zen amantala, *tauliera* baizik. Eta ez diezadazuela erran hau ez dela hiztegian, han behar bailuke, kondizioaren ekaia baita, jongoia baino.

Oroitzapen horretan, keinu bat dut sustut gogoan: nola tenore batetik goi-

ti *tauliera* kentzen zuen. Bai ala bai. Ezin jakin orduaren arabera zenez, ala betetako zeregin kopuru batetik goiti gertatzen ote zen. Segur da heltzen zela tenorea horren kentzeko.

Lehenik, garondoa uztartzen zion uhala bi aldeetatik hartu eta buruaren gainetik idokitzen zuen, gero, errainak zingilatzen zizkion korapiloa desegiten zuen, eta horrela libratzen zuen gorputz mendre hura, bera baino zabalagoa zen oihalaren trabatik.

Isilik, mahaitik altxa eta sukaldeko atearen gibelean iltzatu kako txar batetik dilingo ezartzen zuen biharamun arte. Keinu horrekin bereizten zituen lanerako eta beste zerbaitetarako tartea. Orduan hasten zen aisiaren antzeko zerbait. Berriak irakurtzea, kontuak egitea, auzoen jorratzea, leihotik hostoak hazten begiratzea, ditzotan aritzea.

Hauek guziak idazten ditut eta gogoia dut nihaurrek *tauliera* askatu eta besainka botatzeko. Hala pentsatzen dut. Pentsatzen dut *slow*, orain geld. Eta gero, denek bezala, segitzen ardura batetik bestera, dena nahaspilan, iluna sekulan helduko ez balitz bezala, dena funtsezkoen kategorian balitz bezala. Dena lana bailitzan eta hortik kanpo deus ez. Ikusietatik ez al dut ikasiko? ●